

1. GUZTIRAKO KOSTUEN EGITURA

9.1. LANGILEAK

Gure enpresako langile kopurua oso handia ez denez, gure diru lorpenak ez dira haien soldatetan hainbeste gastatuko. Enpresaren gastuetan erreparatu (agente-komertzialak adibidez) eta honen diru sarreraren kontrola izango dutenek 2500€ irabaziko lituzkete.



Ingenialariei, berezko soldata bat jarriko genieke beste langileetaz aparte, beraien lanak formakuntz handiagoa eskatzen duenez, haien soldata ere handiagoa izango litzateke, 2.750€. Kontuan izan beharko genuke ere langile gehiago izan beharko genituzkela sektore honetan, egunean bi txanda eginez, ekoizpen handiagoa izateko.

9.2. LAN ASEGURUAK



Ofizinetako langileek lan aseguru mota bat izango dute, merkeagoa izango dena. Beste alde batetik, ingeniariarik lan baldintza desberdinetan jarduteagatik haien aseguruak ere desberdinak izango ziren, garestiagoak.

Enpresaren aseguruan, edozein kalteren aurrean hartuko genituzkeen neurriak, materialaren babesa, honen berreskurapena eta lantegiaren hobekuntzak sartuko genituzke.

9.3. LANTEGIA ETA HORNIKUNTZA GASTUAK



Lantegiaren kostuen barruan, alokairua egongo litzateke, honetan 1500€ inguru gastatzera prest egongo ginateke.

Beste alde batetik, argiaren kostua dago. Kasu honetan, eskulangintzako zatian diru gehiago gastatuko litzateke, ofizinarako argia, edo kalefakzioez gain makinak izango genituzkeelako.

9.4. APP-ak

Aplikazio bat edukiko genuke gure produktua saldu ahal izateko eta horren bitartez gure produktuaren propaganda egiteko. Hemen dirua gastatu beharko genuke 1000-1500€ propaganda sendoa izateko, gaur egun bide honetatik lortzen direlako bezero gehienak.



9.5. GARRAIOA

Garraioa, salerosketa APP-en bidez egiten bada, enpresa horrek jartzen du garraioa. Beraz, APPa bidez bada ez dugu dirurik gastatuko. Baina gure dendatik erosten badira produktuak, garraio azkar bat bermatu nahi dugu, honetarako bidalketa bakoiteko garraioaren erdia ordainduko dugu eta




beste erdia bezeroek ordainduko dute (bidalketa bakoitzeko guk 5€). 5-10€ artean eskatu diegu bezeroei garraioarengatik ordaintzea, esakutakoaren tamaina edo modeloaren hauskortasunaren arabera igo edo jeitxiko dena. Guk beste erdia ordainduko genuke, 5-10€ ere.

GASTU FINKO ETA EZ FINKOAK

- Kostu finkoak honako hauek dira: lokalaren alokairua, gure langileen soldatak, lan aseguruak eta APP-etan sartuko dugun dirua izango dira.
- Kostu aldakorak honako hauek dira: Lantegiaren barruan makinaren egonkortasuna eta ofizinako materiala eta garraioa izango dira.

Gastuen Taulak

Hilabeteko irabaziak eta galerak



Sarrerak	Kostuak
200.000	$(2500 \times 10) + (2750 \times 6) + 1500 + 1500 + 500 = 170.000$